



# BilboShop

B I L B O B I Z I



MERKATU SEGMENTAZIOA





# BilboShop

B I L B O B I Z I

## Gure xede bezeroak

Segmentazioaren arabera, gure enpresa merkataritza txikiari zuzenduta egongo da area geografiko mugatu batean, hau da, **Bilboko dendari txikiei**, ospe handia ez dutenak, eta marketing plan bat behar dutenak adibidez.

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, gure proiektua honako bi hauei zuzen diezaiokegu:

- **Segmentatutako** merkatua: Behar ezberdinak dituzten merkatariei zuzendu ahal diegu gure zerbitzua, zerbitzua haien beharrei egokituz.
- **Dibertsifikatutako** merkatua: Bezero motaren arabera zerbitzu ezberdinak eskainiko ditugu. Alde batetik merkataria eta beste batetik bezero finalak (erosleak) izango ditugu. Eta horietako bakoitzari zerbitzu ezberdinak eskainiko dizkiegu.

## Dendak eta Erosleak

Gure enpresarentzako diru iturri izango diren **bi bezero mota** ditugu: **Bilboko denda txikiak**, gure lehen mailako bezeroak izango direnak, haiei eskainiko baitizkiegulako gure zerbitzuak, eta gure plataformaren bidez, gure zerbitzuetara harpidetutako dendek eskaintzen dituzten produktuak erosiko dituzten **erosleak** izango dira gure bigarren mailako bezeroak.





# BilboShop

B I L B O B I Z I

## Dendak

Gure bezero diren dendek ezaugarri nagusia haien negozio bolumena da. Denda txikiak dira, eta gaur egungo merkataritza gune masiboekin alderatuta ezberdintasun handia dute, eta hauekiko lehia oso zaila da.

## Erosleak

Gure plataformaren bidez harpidetutako dendek produktuak erosiko dituzten bezeroak edonolako adin tartetan egon daitezke, eta ez dago bereizteko bestelako xehetasun zehatzik, harpidetutako dendek mota askotako produktuak eskaintzen dituzte, eta horrenbestez, **mota askotako erosleak** erakarriko dituzte.

